

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

209. zenbakia**Data 2012-11-02****2 orria**

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA**42/2012 FORU DEKRETUA, urriaren 22koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

42/2012 FORU DEKRETUA, urriaren 22koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren gaurko erregelamendua azaroaren 15eko 85/1994 Foru Dekretuaren bidez onartu zen, eta nahiz eta, harrez geroztik, urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauak, zerga hori arautzen duenak, aldaketa handiak izan dituen bere edukian, erregelamendua aldaketarik gabe mantendu da bere aurreikuspenetan.

Hori aintzat hartuta, komeni da erregelamendua onartu zenetik foru arauan sartu diren aldaketek zenbateko eragina duten aztertzea, haren edukia eguneratzeko eta erregelamendu hori zerga arautzen duten benetako oinarrietara egokitzeko.

Horregatik, foru dekretu honen bitartez Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren erregelamendu berria onartzen da foru araua garatze aldera. Erregelamendu horretan edukia murrizten da, garatzekoak diren alderdiak bakarrik arautzen dira, eta saihesten da foru arauan dagoeneko araututa dauden edukiak errepikatzea. Horrela, erregelamendua aldatu beharko da, bakar-bakarrik, foru arauan sartutako aldaketek erregelamenduz garatu beharreko gaietan eragina dutenean, eta ez foru araua aldatzen den bakoitzean.

Erregelamendu honek bi titulu ditu, berrogeita hamahiru artikulua eta xedapen gehigarri bat. I. tituluak zergaren antolamenduari buruzko gaiak arautzen ditu. Horrela, lehen kapituluaren printzipio orokorrak jasotzen dira, bigarrenean zerga-egitatea mugatzen da, hirugarrenean zehazten da zein diren zergaren subjektu pasiboak eta erantzuleak, laugarrenak oinarri ezargarriaren zehaztapenari buruz jarduten du, bosgarrenak sortzapena eta preskripzioa jorratzen ditu, eta, azkenik, seigarren kapituluaren arau bereziak jasotzen dira.

II. tituluak zergaren kudeaketarekin lotutako alderdiak arautzen ditu, eta hiru kapituluaren dago banatuta: Lehenengoak zerga aitortu eta likidatzeko arau orokorrak biltzen ditu, bigarrenak foru arauan jaso eta erregelamenduz garatzekoak diren prozedura bereziak jorratzen ditu, eta azkenik, hirugarren kapituluak erregistroa ixteko erregelak arautzen ditu zerga obligazioa egoki betetzea bermatze aldera.

Xedapen gehigarrian aipatzen da zer araudiren arabera aplikagarri zaien izatezko bikoteei erregelamendu honek dakarren zerga obligazioa.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzea.

Onaturik geratzen da Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua, foru dekretu honetan eranskin gisa atxiki dena.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe geratzen dira foru dekretu honetan eta eranskinetako erregelamenduan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, azaroaren 15eko 85/1994 Foru Dekretua, Oinordetzen

eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

Amaierako xedapena.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu honetan eta horren bidez onartutako erregelamenduan ezarritakoa garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.
2. Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2012ko urriaren 22a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martin Garitano Larrañaga.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Helena Franco Ibarzabal.

(2588) (10070)

ERANSKINA

OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA

I. TITULUA

ZERGAREN ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ondare gehikuntzaren kontzeptua.

Pertsona fisiko baten ondareari ondasunak eta eskubideak gehitzea da Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpeko ondare gehikuntza, betiere haren kausa zergaren foru arauaren arabera obligazio tributarioaren sorrarazle diren zerga-egitateetako bat gauzatzea bada.

2. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekiko bateraezintasuna.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak ezingo dute inoiz ere batera zergapetu ondare gehikuntza bera.

3. artikulua. Baldintzak betetzea.

Baldin eta zergari lotutako ondare gehikuntza ekarri duen egintza edo kontratuari baldintza bat bete beharra ezarri bazaio, legeria zibilean ezarritako preskripzioei jarraiki kalifikatuko da. Etengarri bezala kalifikatuz gero, zerga ez da ordainduko baldintza bete arte, eta ondasunak erregistro publikoetan inskribatu ahal izango dira baldin eta egindako idazpenaren bazterrean jasota uzten bada likidazioa geroratu dela. Suntsiarazle bezala kalifikatuz gero, zerga exijitu egingo da, baina horrek ez du eragotziko bidezko itzulketa egitea baldintza betetzen bada.

4. artikulua. Eskualdatutako ondasunak zerga ordaintzeko obligazioari lotzea.

1. Eskualdatzen diren ondasun eta eskubideak, nor ere den haien jabea, eskurapena kargatzen duen zerga ordaintzeko erantzukizunari lotuta geratuko dira, zerga hori likidatuta egon edo ez, salbu eta jabea erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat denean edo, ondasun higigarri inskribaezinen kasuan, ondasunen eskurapena jendeari irekitako establezimenduetan onustez eta titulu zuzenarekin eskuratu direla justifikatzen denean.

2. Onura fiskal baten behin betiko eraginkortasunak ezinbesteko baldintza badu zergadunak edozein beharkizun gerora betetzea, eta jabariaren zatibanaketak ondorengo likidazio bat egin beharra ekartzen badu hura batzearen ondorioz, Zerga Administrazioak dokumentuan jaso beharko du zirkunstantzia hori, aurkezleari hura itzuli baino lehen, eta Jabetzako eta Merkataritzako erregistratzaileek, albo-oharraren bidez, jasota utzi beharko dute eskualdatutako ondasunak bidezko likidazioak ordaintzeko obligazioari lotuta geratzen direla onura fiskalari ezarritako beharkizuna betetzen ez denean edo jabaria zergaren araudiari jarraiki batzen denean.

II. KAPITULUA. ZERGA-EGITATEA MUGATZEA

5. artikulua. «Mortis causa» eskurapenak. Oinordetza tituluak.

1. Herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza tituluren bidez egiten diren ondasun eta eskubideen eskurapenak kausatzailearen heriotza-egunean egindakotzat joko dira, eta, beraz, zerga exijitzeko aski izango da eskualdaketa sortu duen egitatea frogatuta egotea, nahiz eta agiriak, inbentarioak edo banaketak formalizatu edo likidatu gabe egon. Eskurapen hereditarioak hortik kanpo geratzen dira berehalako eragingarritasuna izateko egiten diren oinordetza itunen ondorio direnean edo komisarioak testamentu-ahalordea baliatzetik datozenean.

2. Besteak beste, hauek dira, herentzia eta legatuaz gain, oinordetza tituluak zerga honen ondorioetarako:

- a) «Mortis causa» dohaintza.
- b) Oinordetza kontratu edo itunak, haien eragina noiznahi gertatzen dela ere.
- c) Hildako kide edo enplegatuen senideek enpresa eta entitateetatik oro har kopuruak jasotzeko eskubidea ematen dutenak, haien modalitatea edo izena zeinahi dela ere, baldin eta berariaz xedatuta ez badago kopuru horiek zergapetzekoak direla zergaren foru arauko 3. artikulua 1. apartatuko c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ezarritakoaren arabera.
- d) Euren lana egiteagatik testamentugileek albazeei esleitutako diru kopuruak jasotzeko eskubidea ematen dutenak, kopuru horiek herentziako ondasunen balio egiaztatuaren 100eko 10 gaingitzen dutenean.
- e) Ezkontza-itunetan oinordea izendatzea.
- f) Komisarioak testamentu-ahalordea erabiltzetik datozen egintzak, hartzen duten itxura zeinahi dela ere.

6. artikulua. Doako eta «inter vivos» moduko negozio juridikoak.

Besteak beste, ondoko hauek dira, dohaintzaz gainera, doako eta «inter vivos» moduko negozio juridikoak, zerga honen ondorioetarako:

- a) Zorra eskuzabaltasunez jokatzeko asmoz barkatzea, osorik zein zati batean.
- b) Eskubideei uko egitea, pertsona jakin baten alde.
- c) Beste baten zorra kontraprestaziorik gabe bereganatzea zorduna libratzeko, zergaren foru arauak 16. artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik.
- d) Epaiketa edo arbitraje batean bestearen alde atzera egin edo amore ematea, eskuzabaltasunez, eta, orobat, transakzio bat egitea, horren ondorioa asmo berberaz egindako uko egite bat, atzera egite bat edo amore emate bat denean.
- e) Bizitzaren gaineko aseguru kontratua, aseguratuak bizirik iraunez gero, eta banakako aseguru kontratua, aseguraturia –kontratugilea ez dena– hilez gero, hala kasu batean nola bestean onuraduna kontratugilea ez denean.

7. artikulua. Bizitza aseguruak. Istripu aseguruak zergapetzea.

Istripu aseguruaren onuradunak kopuruak jasotzea zergaren foru arauko 3. artikulua 1. apartatuko c) letrako zerga-egitatean sartuta egongo da, horiek jasotzearen arrazoa pertsona aseguratuaren heriotza denean.

8. artikulua. Aldizkako prestazioak.

1. Jasotzen diren kopuruak baldin badira zergaren foru arauak 3. artikulua 1. apartatuko c) letran aipatutakoak edo erregelamendu honen 5. artikulua 2. apartatuko c) eta d) letretan eta 6. artikuluko e) letran aipatutakoak, horiek jasotzea zergari lotuta egongo da, bai batera jasotzen direnean, eta bai aldizkako, bizi arteko edo aldi baterako prestazio moduan jasotzen direnean.
2. Aldizkako, bizi arteko edo aldi baterako prestazioak jasotzea erregelamendu honen 26. artikulua zergaren sor-tzapenari buruz xedatutakoaren arabera arautuko da.
3. Aurreko apartatuko kasuetan, Administrazioak, oinarri ezargarria zehazte aldera, zilegi izango du pentsioaren uneko balioaren kalkulu aktuarialera jotzea perituen irizpenaz baliatuta.

9. artikulua. Zerga-egitatearen eragingabetasun juridikoa.

Kontratua indarrrik gabe geratzen bada alderdi kontratugileek hala adostu dutelako, ordaindutako kuotak ez dira itzuliko, eta elkarren arteko akordio hori zergapetu beharreko egintza berriztat hartuko da.

Elkarren arteko akordioarekin parekatuko dira adiskidetze-egintzan adostasuna lortzea, demandari erabateko amorea ematea eta demandatuak aitortza judiziala egitea, betiere kontratuaren eragingabetasuna eragiten duten gertaerak aitortzea dakartenean.

III. KAPITULUA. -SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK

10. artikulua. Zergadunak.

1. Zergaren foru arauak 6. artikuluan xedatutakoez gain, ondoko hauek egongo dira zerga ordaintzera behartuta, zergadun gisa:
 - a) Bizitza aseguruaren onuraduna, aseguratu bizirik dagoenean, edo banakako aseguruaren onuraduna, aseguratu –kontratugilea ez dena– hiltzen denean. Kasu bietan, kostu gabeko «inter vivos» eskualdaketagatik tributatu da.
 - b) Aseguratuaren heriotza kasuetarako egindako bizitza aseguruaren eta erregelamendu honen 7. artikuluan aipatutakoetan, onuradunak.
2. Zergaren foru arauko 6. artikuluan eta aurreko apartatuan xedatutakoa aplikagarria izango da, alderdiek ezarritako estipulazioak edo testamentugileak agindutako xedapenak zeinahi direla ere.
3. Legatua zergarik gabe ematea edo zerga hori herentziaren kargura ordaintzea agintzen duen testamentuko xedapenak ez du inolako aldaketarik eragingo zerga ordaindu behar duen pertsonari dagokionez.

11. artikulua. Erantzukizun subsidiarioa mugatzea eta iraungitzea.

1. Zergaren foru arauak 8. artikuluan aipatzen den erantzukizun subsidiarioa mugaturik dago, beti, erantzukizun hori sorrazten duten ondasunen eskurapenari dagokion zerga-zatiagatik, halakotzat hartuta ondasunen balio egiaztatuari batez besteko karga-tasa efektiboa aplikatuz ateratzen den emaitza.

Ondorio horietarako, batez besteko karga-tasa efektiboa eragiketa honen emaitza izango da: Zerga kuota zati oinarri likidagarria bider 100. Batez besteko karga-tasa bi hamartarrekin adieraziko da.

2. Autolikidazio partziala zergaren foru arauan eta erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera egitea baimenduta dagoenean, haren zenbatekoa izango da balizko erantzukizun subsidiarioaren muga, baldin eta aurreko zenbakian xedatutakoa aplikatuz ateratzen dena baino txikiagoa bada.

3. Erregelamendu honen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako autolikidazio partzialaren zenbatekoa ordaintzen bada, autolikidazio partzialean sartutako ondasunen eskualdaketa hereditarioari dagokion zerga zorra ez ordaintzeak zergaren foru arauko 8. artikuluan aipatzen diren entitate eta pertsonentzat ekar lezakeen erantzukizun subsidiarioa iraungita geratuko da.

IV. KAPITULUA. OINARRI EZARGARRIA

1. SEKZIOA. -«Mortis causa» eskurapenetan eta kostu gabeko «inter vivos» eskualdaketetan aplikatu beharreko arau bereziak

12. artikulua. Herentziako ondasunak zehaztea.

1. Kausadun bakoitzaren banakako partaidetza zein den zehazteko, kausatzaileak utzitako ondasunen artean sartuko dira, baita ere, zergaren foru arauko 11. artikuluan eta erregelamendu honen 14tik 17ra bitarteko artikuluetan ezarritako presuntzioen ondorioz gehitutako ondasunak, salbu eta presuntzioen arabera ondasun horiek pertsona jakin batzuen oinarri ezargarriari egoztekok direnean.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ez da kausadunen banakako partaidetza zehazteko aplikatuko, testamentugileak kausadun horiei ondasun jakin batzuk utzi dizkienean, herentziako beste ondasunetatik kanpo utzita. Ondasun jakin batzuk eta gainerako herentzia masaren partaidetza bat utzi badizkie, proportzionalki dagozkien ondasun gehituen zatia konputatuko zaie, gainerako herentzia masan duten partaidetzaren arabera.

3. Erregelamendu honen 10.3 artikuluan aipatzen diren legatuen kasuan, zergaren zenbatekoak ez du handituko legatudunaren kargura egin beharreko likidazioaren oinarri ezargarria, baina zenbateko hori ez da inoiz ere kengarria izango gainerako kausadunen oinarri ezargarria zehazteko.

13. artikulua. Banakako partaidetzaren balio garbia zehaztea.

1. Kausadun bakoitzaren banakako partaidetzaren balio garbia zehazteko –balio hori zergaren foru arauaren 9.a) artikuluan dator aipatua–, ondasun edo eskubideen baliotik honako hauek kenduko dira:

a) Haien gainean ezarritako zama edo kargena, baldin eta horiek kengarriak badira zergaren foru arauan eta erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

b) Kengarriak izateko baldintzak betetzen dituzten zorren balioa.

c) Eskuratzen direnean onura fiskalen bat dutenei dagokiena, onurarako ezartzen den proportzioan.

d) Zergaren foru arauan eta erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera kengarriak diren gastuen zenbatekoa.

2. Zamak ukitutako ondasunak edo onura fiskalaz eskuratutakoak pertsona jakin bati utzi dizkionean testamentugileak, edo, haren erabakiz zorra ordaintzea kausadunetako baten obligazioa denean, kenkaria pertsona edo kausadun horrentzat bakarrik izango da.

14. artikulua. Hil aurreko urtean kausatzailearenak izateagatik gehitu daitezkeen ondasunak.

1. Zergaren foru arauak 11. artikuluen 1. apartatuko a) letran xedatutakoaren ondorioetarako, presuntzio egingo da ondasunak kausatzailearenak izan direla baldintza hauetako bat betetzen denean: Lehendik haren izenean agertzea gordailuetan, kontu korranteetan, aurrezki-kontuetan, bermedun maileguetan edo antzeko kontratuetan, edo, bestela, haren izenean inskribatuta egotea katastroetan, zerga erregistroetan, jabetza erregistroetan edo beste erregistro publiko batzuetan.

Dirua edo ondasun subrogatuak daudela ez justifikatzeak ez die galaraziko interesdunei eskualdaketa egin izana frogatzeko duten eskubidea.

2. Presuntzio honen babesean egindako gehikuntzak kausadun guztiei eragingo die oinordeko diren proportzio berean, non eta modu sinesgarrian ez den frogatzen eskualdaketa zergaren foru arauko 11. artikuluen 1. apartatuko

a) letran adierazitako pertsonetako bati egin zaiola. Horrelakoetan, gehikuntzak pertsona horri bakarrik eragingo dio, zeina oinordeko edo legatudun bihurtuko baita zerga ondorioetarako, ordurako izaera hori ez badu.

15. artikulua. Hil aurreko hiru urteetan kausatzaileak usufruktuan eskuratzegatik gehitu daitezkeen ondasunak.

1. Zergaren foru arauak 11. artikulua 1. apartatuko b) letran ezarritako presuntzioa hutsalduta geldituko da baldin eta behar bezala frogatzen bada jabetza soilaren eskuratzailerak eskualdatzaileari behar besteko dirua ordaindu edo balio bereko ondasun edo eskubideak eman dizkiola eskurapena egiteko.

Dirua edo ondasun subrogatuak daudela ez justifikatzeak ez die galaraziko interesdunei kostu bidezko eskualdaketa egin izana frogatzeko duten eskubidea.

2. Presuntzio horren babesean egindako gehikuntzak jabetza soilak eskuratu duenarentzat bakarrik izango du eragina, eta ondasunaren edo eskubidearen jabari osoa «mortis causa» eskuratzegatik egingo zaio likidazioa. Likidazio hau egiteak berekin ekarriko du jabari osoa batzegatik dagokion likidazioa egin behar ez izatea.

16. artikulua. Hil aurreko lau urteetan kausatzaileak jabetza soilak eskualdatzegatik gehitu daitezkeen ondasunak.

1. Zergaren foru arauak 11. artikulua 1. apartatuko c) letran ezarritako presuntzioa hutsalduta geldituko da behar bezala frogatzen bada herentziako ondasunen artean badagoela jabetza soilak eskualdatzearen kontraprestazio gisa jasotako dirurik edo balio bereko ondasunik.

Dirua edo ondasun subrogatuak daudela ez justifikatzeak ez die galaraziko interesdunei eskualdaketa egin izana frogatzeko duten eskubidea.

2. Presuntzio horren babesean egindako gehikuntzak jabetza soilak eskuratu duenari bakarrik egingo dio kalte. Eskuratzailerak ez bada oinordeko bat, legatuduntzat hartuko da, eta hari likidatuko zaio dena delako ondasun edo eskubidearen jabari osoa «mortis causa» eskuratzegatik egin beharreko likidazioa. Likidazio hau egiteak berekin ekarriko du jabari osoa batzegatik dagokion likidazioa egin behar ez izatea.

17. artikulua. Baloreak edo efektuak endosatzeagatik gehitu daitezkeen ondasunak.

Zergaren foru arauak 11. artikulua 1. apartatuko d) letran xedatutakoan oinarrituta egindako gehikuntzak baloreen endosu-hartzailearentzat bakarrik izango du eragina, eta hura legatuduntzat hartuko da oinordeko ez bada.

18. artikulua. Ondasunak ezin gehitzea eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga kentzea.

Aurreko 14tik 17ra bitarteko artikuluetan aipatutako gehikuntzak ezingo dira egin, baldin eta ondasunak kostu bidez eskualdatzegatik Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ordaindu den zenbatekoa handiagoa bada presuntzioak eragindako oinordeko edo legatudunari Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan legokiokeen batez besteko tasa efektiboa eskualdaketa unean egiaztatutako balioari aplikatzen ateratzen dena baino, betiere likidazioan balio hori sartu bada. Batez besteko karga-tasa efektiboa erregelamendu honen 11.1 artikuluan ezarritako eran kalkulatu da.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarengatik ordaindutako zenbatekoa txikiagoa bada, zilegi izango da gehikuntza egitea, baina subjektu pasiboak zerga horregatik ordaindutakoa kendu ahal izango du Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioa egiten duenean.

19. artikulua. Indibiso egoeran dauden ondasunetan kausatzaileari egotz dakiokeen proportzioaren presuntzioa.

Herentzia onartugabeen, ondasun-erkidegoen eta, nortasun juridikorik izan gabe, unitate ekonomiko edo ondare bereizi diren gainerako entitateen ondasunetan kausatzaileari egotz dakiokeen partaidetza herentziako ondasunei gehituko zaie aplikatzekoak diren arauetatik edo interesatuen arteko itunetatik datorren proportzioan, eta Administrazioak ez badu haien berri sinesgarririk, interesdun kopuruaren arabera.

20. artikulua. «Mortis causa» eskurapenetan eta kostu gabeko «inter vivos» eskualdaketetan zamak eta kargak kentzea.

1. «Mortis causa» eskurapenetako zamak eta kargak zergaren foru arauko 12. artikuluan kentzearen ondorioetarako, eta, orobat, kostu gabeko «inter vivos» eskualdaketetakoak arau horren 15. artikulua arabera kentzeko, aurkeztutako agiritan pentsio, zama eta karga kengarrien iraupena berariaz jasota ez badago, iraupen hori mugagabetzat hartuko da.

2. Kenkaria aplikatzeari begira, zentsuko baliotzat hartuko da hura Kode Zibilak ezarritako arauen arabera luditzeko eman behar den kapitalarena.

3. Pentsioen balioa zehazteko, diruaren legezko interesaren arabera kapitalizatu behar dira pentsioak, eta ateratzen den kapitaletik hartu behar da usufuktuak baloratzeko ezarritako erregelak aplikatuta pentsiodunaren adinari dagokion zatia, pentsioa bizi artekoa bada, edo pentsioen iraupenari dagokiona, pentsioa aldi baterakoa bada. Pentsioduna hiltzean iraungitzen ez diren aldi baterako pentsioen balorazioan ez da aintzat hartuko usufuktuen kasuetan finkatutako muga. Horrela lortutako balioa zuzentzeko, interesdunak zilegi du peritu-tasazio kontrajarria eskatzea.

Pentsioa iraungitzen denean, ondasuna eskuratzen duena behartuta dago pentsioa eratzeko garaian indarrean zegoen tarifaren arabera kendutako kapitalari dagokion zerga ordaintzera.

21. artikulua. «Mortis causa» eskurapenetan eta kostu gabeko «inter vivos» eskualdaketetan zorrak kentzea.

1. Zehazki, «mortis causa» eskurapenetan, kausatzailearen zorrak kengarriak izango dira epai judizial irmo batek aitortu dituenen.

Kausatzailearen zorrak agerian jartzen badira Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaindu eta gero, haiek kentzeko erregelamendu honen 50. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

2. Dohaintzan emandako edo doako beste negozio juridiko baliokide baten bidez eskuratutako ondasun edo eskubideen baliotik, eskuratutako ondasun edo eskubide horien gaineko eskubide errealaz bermatuta dauden zorren zenbatekoa baino ezingo da kendu, betiere baldin eta eskuratzailleak bermatuta dagoen zorra ordaintzeko obligazioa bere gain hartu badu modu sinesgarrian, hasierako zorduna libratzeraino.

Nolanahi ere, zergaren zenbatekoa ordaindu ondoren, eskuratzailleak sinesgarriro frogatzen badu lau urteko epean –autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitzen denetik aurrera– zorra bere kontura ordaindu duela, eskubidea izango du berak ordaindutako zorrari dagokion zerga-zatia bueltan jasotzeko. Horrelakoetan, erregelamendu honen 51. artikuluan ezarrita dagoen prozedurari jarraituko zaio itzulketa egiteko. Epe horrek ez du etenaldirik onartuko.

22. artikulua. «Mortis causa» eskurapenetan izandako arbitraje gastuak kentzea.

1. «Mortis causa» eskurapenetan izandako arbitraje gastuak kengarriak izango dira zergaren foru arauak 14. artikuluko a) letran jasotzen dituen baldintza berdinetan, jarduketen testigantzaz frogatuta badaude.

2. Kausatzaileak utzitako ondasunak administratzeak dakartzan gastuak ez dira kengarriak izango.

23. artikulua. Ezkontza-sozietatearen edo izatezko bikotearen ondasun erkideak dohaintzan ematea.

1. Irabazpidezko ondasunen dohaintzak ezkontide biek batera egiten dituztenean, eta horrelako ondasunen dohaintza bat egin izanaren presuntzio bat aplikatzea zilegi denean, zerga likidatzeari begira ulertuko da bi eskualdaketa diferente daudela, eta bakoitzaren oinarria eta karga-tasa kalkulatzeko, dohaintzan emandako ondasun guztien

balioaren erdia hartuko da kontuan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

2. SEKZIOA. Aseguru gaietan aplikatzeko arau bereziak

24. artikulua. Ezkontza-sozietatearen edo izatezko bikotearen ondasun erkideen kontura kontratatutako aseguruak.

1. Asegurua bi ezkontideetako batek kontratatu badu irabazpidezko sozietatearen kontura, eta onuraduna bizirik dagoen ezkontidea bada, oinarri ezargarria jasotako kopuru osoak eratuko du.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, baldin eta bikoteko kideek ezarri duten ondare erregimen ekonomikoa irabazpidezkoarena bada.

3. SEKZIOA. Balioen egiaztapena

25. artikulua. Baloratzeko eta aurka egiteko arauak.

1. Hiri ondasun higiezin kasuan, eskualdatutako ondasunen benetako balio gisa interesdunek jar dezakete urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuak zehazki II. tituluan xedatutakoa aplikatzetik ateratzen dena. Ondasun higiezin hiritarren balio katastrala eta balio egiaztatua zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentziazat hartuta zehazteko prozedura onartzen du foru dekretu horrek.

2. Merkatuko batez besteko prezioak ezarriak dituzten ondasunen kasuan, Zerga Administrazioak aldian aldiro taula ofizialak onartzen dituenean, eskualdatutako ondasunen benetako balio gisa interesdunek taula horiek aplikatuzetik ateratzen den emaitza jar dezakete.

3. Kostu gabeko «inter vivos» eskualdaketen kasuan, balioak egiaztatze espedientearen emaitza eskualdatzaileei jakinarazi behar zaie aldez aurretik, eta emaitzak haien eskubide eta interesei eragiten badie, haren aurka egin dezakete. Erreklamazioa osorik edo zati batean onesten bada, ematen den ebazpena Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren subjektu pasiboentzat ere izango da onuragarria.

4. Egiaztapenetik lortutako balioa handiagoa den kasuetan, ez da zehapenik aplikatuko baldin eta subjektu pasiboak ondasunen balio gisa aitortu duena Ondarearen gaineko Zergaren erregela aplikatzetik ateratzen dena edo handiagoa bada.

V. KAPITULUA. SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA

26. artikulua. Sortzapena.

1. Kontratugile edo aseguratuaren bizi-iraupen kasurako egindako bizitza asegurua onuradunak kopuruak eskuratzen dituenean, onuraduna eta kontratugilea pertsona bera ez badira, zerga sortuko da jaso beharreko lehen kopurua edo kopuru bakarra onuradunak exijitu dezakeenean.

2. Ondasun edo eskubideen eskurapenak etenda badu eraginkortasuna tartean baldintza bat, epemuga bat, fideikomiso bat edo beste edozein muga ezarri delako, eskurapen hori muga horiek desagertzen diren egunean joko da gauzatutzat, eta data horri erreparatuko zaio bai ondasunen balioa eta bai zerga tasak zehazteko.

3. Eskuratzen diren ondasun eta eskubideak komisario bidezko testamentu baten eraginpean badaude uztailearen 1eko 3/1992 Legeak, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoak, 164. artikuluan eta bere hurrengoetan xedatutakoaren arabera, zerga honela sortuko da:

1.a.— Ondasun edo eskubideen eskurapenak gertatzen badira komisarioari eman zaion xedatze-ahalmena edo testamentu-ahalordea baliatzeagatik edo haren esku utzi den eta zerga-egitatea sortzen duen beste edozein ahalmen erabiltzeagatik, zerga sortuko da ahalmen horiek osorik edo zati batean baliatzen diren egunean.

2.a.— Eskurapenak komisario bidezko testamentuaren mende dauden ondasun edo eskubideenak badira, eta xedatzeko ahalmena edo testamentu-ahalordea haiek osorik edo zati batean baliatu aurretik iraungi badira, ahalmena edo ahalordea iraungiarazten duen zirkunstantzia gertatzen den egunean sortuko da zerga.

3.a.— Komisario bidezko testamentuan adierazten bada ahalordea baliatzen ez den bitartean herentziako ondasun guztien edo batzuen usufruktu eskubidea pertsona jakin bati ematen zaiola, usufruktu eskubideari dagokion zerga sortuko da usufruktua eratu duena hiltzen den egunean edo, bestela, kausatzailearen heriotza deklarazioa Kode Zibileko 196. artikulua arabera irmo bihurtzen den egunean.

27. artikulua. Preskripzio epea konputatzea.

1. Zergaren foru arauak 24. artikuluan aipatzen duen preskripzio epea egun hauetatik aurrera hasiko da zenbatzen:

a) Kostu gabeko «inter vivos» eskualdaketen kasuan, erregelamendu honen 40. artikuluko b) letran autolikidazioa aurkezteko ezarrita dagoen epea amaitzen den egunetik aurrera.

b) «Mortis causa» eskualdaketen, autolikidazioa aurkezteko epe arrunta edo, hala bada, luzapen epea, hurrenez hurren erregelamendu honen 40. artikuluko a) letran eta 41. artikuluan aipatutakoak, amaitzen direnetik aurrera.

c) Bizitza aseguruaren onuradunek kopuruak jasotzen dituztenean, erregelamendu honen 40. artikuluko a) letran autolikidazioa aurkezteko ezarrita dagoen epea amaitzen denetik aurrera.

d) Zehapenak ezartzeko akzioari dagokionez, urraketa egiten denetik aurrera.

2. Eskurapenen kausa bada dohaintza bat edo «inter vivos» egindako eta agiri pribatuan jasotako doako beste negozio juridiko batzuk, preskripzio epea zenbatzen hasteko kontuan hartuko da noiz dituen agiriaren datak ondorioak hirugarrenen aurrean Kode Zibilak 1.227. artikuluan jasotakoaren arabera, preskripzio epea une horretatik aurrera hasiko baita zenbatzen.

Presuntzio egingo da agiri pribatuek duten data zerga honen autolikidazioarekin batera haiek aurkezten diren egunekoa dela, betiere aurretik Kode Zibilaren 1.227. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat gertatu ez bada. Izan ere, horrelakoetan kontuan hartuko den data eransketarena, inskripzioarena, heriotzarena edo ematearena izango da, hurrenez hurren.

3. Preskripzio epea Zergen Foru Arau Orokorrak ezarritakoaren arabera etengo da.

VI. KAPITULUA. ARAU BEREZIAK

28. artikulua. Usufruktuak.

Zergaren foru arauak 25. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, usufruktu eskubidea eta jabetza soilari dagokiona baloratzeko, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Aldi baterako usufruktuaren balioa zehazteko, urtebetetik beherako denbora-zatiak ez dira konputatuko; aldiz, urtebetetik behera irauten duen usufruktua ondasunen balioaren 100eko 5ean konputatuko da.

b) Usufruktua pertsona juridiko baten alde eratu bada, pertsona fisiko bati egotzitako jabetza soilak zer balio duen zehazteko, aplikatzekoak izango dira zergaren foru arauak 25. artikuluko a) letran ezartzen dituen erregelak, baina usufrukturako ezingo da inoiz konputatu ondasunei emandako balioaren 100eko 60 baino gehiago. Portzentaje hori bera hartuko da kontuan usufruktuak iraupen mugagabea duenean.

29. artikulua. Erregela bereziak.

1. Usufruktu eskubidea eskuratzean, usufruktudunak eskubide horren balioan oinarrituta autolikidatu behar du zerga, zergaren foru arauak 19. artikuluan aurreikusten dituen murrizketak aplikatuta, hala badagokio.

2. Jabetza soilaren eskuratzailerak haren balioa kontuan hartuz autolikidatu behar du zerga, betiere, zergaren foru arauak 19. artikuluan aurreikusten dituen murrizketak aplikatuta, hala badagokio.

Aurreko likidazioaren kaltetan izan gabe, usufruktua iraungitzen denean, lehen jabe soilak autolikidazio bat egin behar du kontzeptu horregatik, eta bertan kontuan hartu ondasunen balio osotik zer portzentajerengatik ez den zergarik ordaindu jabetza soilaren eskuratzearan. Jabaria batzeko unean ondasunek zuten balioaren gainean aplikatuko da portzentaje hori, iraungitzearen momentuan indarrean izan den zergaren arauari jarraiki.

3. Jabe soilak bere eskubidea eskualdatzen duen kasuetan, eta bazterrean utzi gabe eskuratzailerak jabetza soilak une horretan duen balioan oinarrituta eta eskurapen tituluari dagokion zerga tasa aplikatuta egin behar duen autolikidazioa, jabari osoa jabe soil berriaren eskuetan batzen denean, horrek lehen jabe soilari egokituko zitzaion zerga ordaindu beharko du, aurreko apartatuan xedatutako eran.

Nolanahi ere, jabaria lehenengo jabe soilaren edo ondorengo jabe soilen eskuetan geratzeko arrazoia ez bada aurreikusitako epea bete izana edo usufruktuduna hiltzea, eskuratzailerak likidazio hauek baino ez ditu ordaindu beharko: Jabaria zatibanatzeagatik egin gabe dauden likidazioen artetik handiena, eta usufruktua iraungitzea ekarri duen negozio juridikoari dagokiona.

Jabaria usufruktudunarengan batzen bada, honek jabe soil bihurtzen duen negozio juridikoagatik egin beharko du autolikidazioa.

Jabaria usufruktuko eta jabetza soilako eskubideak aldi berean eskuratzen dituen hirugarren batengan batzen bada, eskurapen horiei dagozkien likidazioak bakarrik egingo ditu.

4. Horren ondorengo usufruktuetan, jabetza soilaren balioa portzentajerik handieneko usufruktua kontuan hartuta kalkulatu da, eta usufruktu hori iraungitzen denean, jabe soilak jabetza soilaren balio gehikuntzagatik ordainduko du. Horrela jokatu da beti, gainerako usufruktuak iraungitzen diren bakoitzean. Arau bera aplikatuko da usufruktua bi ezkontideen alde aldi berean eratu denean, baina jabaria batzeagatik egin beharreko autolikidazioa azkena hiltzen denean bakarrik egingo da.

5. Onartutako usufruktuari uko egitea, nahiz eta uko hori hutsa eta soilaren izan, usufruktudunak jabe soilari egindako dohaintzat hartuko da, zerga ondorioetarako.

6. Usufruktua usufruktudunaren bizitzaz besteko baldintza suntsiarazlearekin eratzen bada, usufruktudunak autolikidazioa egin behar du bizi arteko usufruktuatarako ezarrita dauden erregelen arabera. Eta baldintza suntsiarazlea betez gero, beste autolikidazio bat egin behar du aldi baterako usufrukturako ezarritako erregelei jarraiki, dagokion zenbatekoa ordainduz edo zilegi duen itzulketa eskatuz.

7. Erabiltzeko eta biztantzeko eskubideak eskuratzen dituenak, eskurapenaren unean, autolikidazioa egin behar du haien balioagatik, zergaren foru arauak 19. artikuluan aipatzen dituen murrizpenak aplikatuta, hala badagokio. Kontzeptu horregatik egiten den autolikidazioaren oinarri ezargarria aintzat hartzeko izango da usufruktudunak, baldin badago, edo, bestela jabe soilak, bere eskubideak eskuratzearagatik egin behar duen autolikidazioan.

Erabiltzeko eta biztantzeko eskubideak iraungitzen direnean, usufruktudunak, balego, usufruktuaren balio gehikuntzagatik ordaindu behar du zerga, zergaren foru arauak 19. artikuluan aurreikusten dituen murrizpenak aplikatuta, hala badagokio. Eta usufrukturik ez badago, jabe soilak egingo du eskubide horiek iraungitzeari dagokion autolikidazioa. Erabiltzeko eta biztantzeko eskubideak baino lehenago iraungitzen bada usufruktua, orduan, jabe soilak autolikidazio egin behar du usufruktu eskubide hori iraungitzeak dakarren batze partzialarengatik. Jabetza soilaren balioak iraungitze horren ondorioz izan duen gehikuntza jaso beharko da autolikidazioan.

30. artikulua. Usufruktu edo erabilera eskubidearekin pareka daitezkeen instituzioak.

1. Kausatzailearen xedapenen ondorioz edo oinordetzaren arau zibilak aplikatzeagatik, herentzia bateko ondasunak osorik edo partez gozatzeko eskubidea pertsona bati ematen zaionean, dela aldi baterako dela bizi artean, zerga ondorioetarako ulertuko da erabilera edo usufruktu eskubide bat dagoela, eta eskubide hori, izena zeinahi duela ere, baloratuko da aldi baterako edo bizi arteko usufruktu edo erabilera-eskubideetarako ezarritako

arauen arabera.

Hala ere, eskuratzailerak ondasunak xedatzeko eskubidea badu, jabari osoagatik likidatuko du zerga, baina horrek ez du eragotziko jabetza soilari dagokion zerga-zatiagatik bidezko itzulketa egitea, baldin eta frogatzen bada ondasun horiek testamentugileak edo araudi aplikagarriak adierazitako pertsonari eskualdatu zaizkiola.

2. Zergaren foru arauan edo erregelamendu honetan erregimen berezia ezarrita duten instituzioei ez zaie aplikatuko aurreko zenbakian xedatutakoa.

31. artikulua. Ordezpenak.

1. Ordezpen arruntean, ordezkioak kausatzailearengandik heredatzen duela ulertzen da eta, beraz, autolikidazioa egin beharko du, kausatzailearekin duen ahaidetasunari erreparatuta, izendaturiko oinordekoa aurretik hil bada, herentzia ezin onarturik badago edo onartu nahi ez badu.

Izendaturiko oinordeak herentzia onartu nahi ez badu, erregelamendu honen 35. artikulua herentziari uko egiten zaionerako xedatutakoa hartuko da kontuan.

2. Ordezpen pupilar eta exenplarretan, ordezkioak ordeztuarengandik heredatzen duela ulertzen da eta, beraz, autolikidazioa egin behar du ordezipena egiten denean, ordeztutako ondorengoarekin duen ahaidetasuna kontuan hartuta, eta testamentugilea hiltzean hark ordaindutakoa eragotzi gabe.

3. Fideikomisozko ordezipenetan, autolikidazioa egingo da fideikomisoa eratzen denean eta ordezipen bakoitzean, fideikomisodunak edo ordezkioak kausatzailearekiko duen ahaidetasuna kontuan hartuta. Fiduziarioa eta fideikomisodunak, horietako azkena izan ezik, usufruktudun hutsak direla joko da, non eta «inter vivos» edo «mortis causa» egintzak direla medio ondasunak eskuratzeko ahalmena ez duten, kasu horretan jabari osoagatik egin beharko baitute autolikidazioa, erregelamendu honen 26.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

32. artikulua. Fideikomisoak.

1. Fideikomisoetan, autolikidazioa egiteko epeen barruan oinordeko fideikomisoduna zein den ezagutzen ez denean, fiduziarioak zergaren foru arauak arrotzen arteko oinordetzarako ezartzen duen tarifa oinarri likidagarriari aplikatuta ateratzen den emaitza ordaindu behar du, non eta fideikomisoduna ez den pertsona jakinen artean izendatu behar, horrelakoetan ahaidetasun urruneneko pertsonari dagokion taldearen tarifa aplikatuko baitzaio oinarri likidagarriari.

2. Aurreko zenbakiaren arabera ordaindutakoa fideikomisodunaren probetxurako izango da, hura ezaguna denean. Hari dagokion tarifak fiduziarioari aplikatutakoak baino gutxiago ordaintzea badakar, gehien ordaindu duenak edo haren kausadunek eskubidea izango dute soberan ordaindutakoa bueltan jasotzeko, erregelamendu honen 42. artikuluen azken bi paragrafoetan xedatutakoaren arabera.

3. Fideikomisoduna zein den autolikidazioa egiteko epeen barruan ezagutzen bada, fideikomisodunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera ordainduko du zerga.

4. Fiduziarioak, edo testamentugileak herentzia eskualdatzeko enkargatutako pertsonak, osorik edo zati batean gozatu baditzake ondasunak, dela aldi baterako dela bizi artean, edo fideikomisozko oinordekoari ondasunak eman arte haien errentak edo produktuak xedatzeko ahalmena badu, usufruktudun gisa ordainduko du zerga, kausatzailearekiko duen ahaidetasunaren arabera. Kasu horretan, ondasunen jabetza eskuratzeko ere fideikomisodunak dagokion zerga ordaindu beharko du, fiduziarioak ordaindutakoa bere alde konputatu gabe.

5. Oinordeko fiduziarioari herentziako ondasunak jabetzan uzten zaizkion fideikomisoetan, nahiz eta zamaren bat kentzeko izan, berak autolikidatu beharko du jabetza eskuratzeko dakarren zerga, zama kenduta berau kengarria bada. Horrelakoetan, kargaren ondoriozko onura eskuratzeko duena ezaguna bada, berak ordainduko du zerga, dagokion tituluarengatik; aldiz, ezaguna ez bada, oinordekoak ordainduko du zerga, baina zamarengatik ordaindutako zerga onuradunari jasanarazi diezaioke, onuraduna zein den ezaguna denean.

33. artikulua. Erreserbak.

1. Kode Zibilaren 811. artikuluen arabera erreserbatu beharrekoa den herentzian erreserbagileak usufruktudun

gisa ordainduko du zerga; hala ere, erreserba iraungitzen bada haren onuradun izendatutako ahaide guztiak hil direlako edo uko egin zaiolako, erreserbagileak jabetza soilari dagokion zerga ordaindu beharko du, zergaren foru arauko 27. artikuluan eta erregelamendu honetako 26.2 eta 35. artikuluetan ezarritakoa aplikatuta.

2. Kode Zibilaren 968., 969., 979. eta 980. artikuluetan aipatzen den erreserba arruntean, erreserbagileak jabari osoari dagokion zerga autolikidatuko du, baina horrek ez du eragotziko ondasunen jabetza soilagatik ordaindutakoaren itzulketa jaso ahal izatea ondasun horiek edo beren subrogatuak erreserba-hartzaileari eskualdatu zaizkiola frogatzen denean.

3. Bi kasuetan, erreserba-hartzaileak zerga ordainduko du erregelamendu honen 26.2 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta eta ondasunak norengandik etorri eta harekin duen ahaidetasun mailari begirata; ez du aintzat hartuko erreserbagilearekiko ahaidetasuna, azken horrek Kode Zibilaren 972. artikuluan aipatzen den hobetze ahalmena lehendik erabili arren.

34. artikulua. Alargunaren senipartea ordaintzea ondasunak jabari osoan emanda.

Kode Zibilaren 839. eta 840. artikuluetan xedatutakoaren indarrez, bizirik dirauen ezkontideari senipartea usufruktua ez den eran edo kontzeptuan ordaintzen bazaio, likidazio bat egingo da esleitutako ondasun edo eskubideen balio egiaztatuan eta usufruktuari esleitutakoan bat datorren kopuruagatik, zergaren foru arauko 25. artikuluan eta erregelamendu honen 28. artikuluan jasotako erregelen arabera. Horren ondorioz, oinordekoei ez zaie inolako likidaziorik egingo jabetza soilarengatik, ezta, bere egunean, usufruktua iraungitzeagatik ere. Baina usufruktua ez den eran esleitutakoaren balioa ezkontide alargunari dagokiona baino txikiagoa edo handiagoa bada, soberakina edo diferentzia soberazko esleipen gisa likidatuko da oinordekoaren edo oinordekoen kargura lehen kasuan, edo ezkontide alargunaren kargura bigarrenetan.

35. artikulua. Uko egitea.

1. Zergaren foru arauak 27.1 artikuluan aipatzen duen ukoa egiten denean, herentzia edo legatuaren uko huts, soil eta doakoaren onuradunak kausadunarengandik zuzenean beste ondasun batzuk jasotzen baditu, artikulua horretan xedatutakoa aplikatuko da bakar-bakarrik baldin eta bi ondasun multzoak bereizik eskuratzegatik egindako autolikidazioen batura handiagoa bada ondasun guztien balioaren gainean egindakoa baino. Onuradunak kausatzailearekin duen ahaidetasun mailaren arabera taldeari dagokion tarifa aplikatuko zaio oinarri likidagarriari.

2. Irabazpidezko sozietatearen eragin eta ondorioetarako bizirik dirauen ezkontidearen edo izatezko bikotegunaren ukoak ondorio gisa ekar dezan uko egindako ondasunak, zerga likidatzeari begira, hildakoak utzitako ondasunen parte izatera pasatzen direla, beharrezkoa izango da ukoa hutsa, soila eta doakoa izateaz gainera, eskritura publiko bidez egina egotea kausatzailea hil baino lehen. Baldintza horiek betetzen ez badira, ukoaren onuradunek autolikidazioa egin beharko dute uko egileak haien alde egindako dohaintza kontzeptuagatik.

36. artikulua. Dohaintza kargadunak eta ordain gisa emandakoak.

1. Dohaintza kargadunak eta ordain gisa emandakoak kontzeptu horregatik eta beren zenbateko osoagatik zergapetuko dira. Elkarrekiko prestazioak badaude edo dohaintza-hartzaileari kargaren bat ezartzen bazaio, diferentziagatik bakarrik zergapetuko dira kontzeptu berberagatik. Horrek ez du kentzen, dena den, zerga ordaindu behar izatea kasuan kasuko prestazioengatik edo ezarrita dauden kargengatik.

2. Bizi arteko edo aldi baterako pentsioen truke egiten diren ondasun lagapenek dohaintza kontzeptupean ordaindu behar dute zerga hau, ondasunen balioa pentsioarena baino handiagoa den zatiagatik. Bi balioak kalkulatzeko, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren arauak aplikatu behar dira.

37. artikulua. Dohaintzak eta kostu gabeko gainerako eskualdaketa parekagarriak elkarren artean metatzea.

1. Zergaren foru arauak 29.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, uneko dohaintza edo eskualdaketa egin aurreko hiru urteetan dohaintzan emandako edo eskualdatutako ondasun edo eskubideen balioa batuz egin behar da metaketa.

2. Aurreko dohaintzetan edo eskualdaketetan ezkontide biek eskualdatu edo eman badituzte dohaintzan ezkontza-sozietatearen ondasunak, eta dohaintza edo eskualdaketa berria ezkontide batek bakarrik egiten badu bere ondasun

pribatiboekin, dohaintza-emaile berriari egotzi dakiokkeen aurreko dohaintzaren edo eskualdaketa-aren balioaren zati proportzionalari eragingo dio soilik metaketak.

3. Metatutako dohaintzak edo eskualdaketak bere garaian haientzat egiaztatutako balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

38. artikulua. Dohaintzak eta kostu gabeko gainerako eskualdaketa parekagarriak dohaintza-emailearen herentziari metatzea.

1. Zergaren foru arauak 29.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, oinordetzari dagokion zerga sortu aurreko lau urteetan dohaintzan emandako edo eskualdatutako ondasun edo eskubideen balioa batuz egin behar da metaketa.

2. Aurreko dohaintza edo dohaintzak ezkontide biek egin badituzte ezkontza-sozietatearen ondasun erkideak erabilia, kausatzaileari egozgarri zaion balioaren zati proportzionalari bakarrik eragingo dio metaketak.

3. Metatutako dohaintzak edo kostu gabeko eskualdaketak bere garaian haientzat egiaztatutako balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

III TITULUA

ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

39. artikulua. Autolikidazio erregimena. Arau orokorrak.

1. Subjektu pasiboek, zergaren aitorpena aurkezteaz batera, dagokion zerga zorra kalkulatu behar dute, eta bai erregelamendu honetan eta bai Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak hura garatzeko ematen dituen arauetan ezarritako lekuan eta eran ordaindu.

2. Eskualdatutako ondasun eta eskubide guztien balioa adierazi behar da autolikidazioan.

Eskuratzaille guztien autolikidazioak aurkeztu behar dira, haiek guztiek adostasuna emanda. Hala ez bada, autolikidazio batengatik sartzen den zenbatekoa autolikidazioa aurkezten duen subjektu pasiboaren konturako ordainketa soiltzat hartuko da.

3. Erregelamendu honetan ezarritako epeak igaro eta interesdunen batek autolikidaziorik aurkeztu ez badu, Zerga Administrazioak hilabeteko epea emango dio, errekerimendua jakinarazten den unetik aurrera, hura aurkezteko. Aurkeztu ezean, Zerga Administrazioak ofizioz egingo ditu autolikidazioak, eskura dituen datuetan oinarrituta, eta aplikagarri diren zehapenak ezarriko ditu.

4. Aurreko 2. apartatuan xedatutakoa gorabehera, erregelamendu honen 46. artikuluan aurreikusitako kasuetan, onartu egingo da ondasun edo eskubideen zati baten autolikidazio partziala egitea.

40. artikulua. Autolikidazioa aurkezteko epeak.

Subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu eta, hala badagokie, zerga zorra ordaindu behar dute, epe hauen barruan:

a) «Mortis causa» eskurapenetan, eta bizitza aseguruaren kontratuetan onuradun direnen kasuan, epea sei hilabetekoa izango da, kausatzailearen heriotza egunetik aurrera edo heriotzaren deklarazioak irmotasuna hartzen duenetik aurrera.

Epe hori bera aplikatuko da usufruktudunaren heriotzaren zain dauden usufruktu eskurapenetan, jabaria «inter

vivos» egintza bidez zatibanatua egon arren.

b) Gainerako kasuetan, epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da, egintza edo kontratua sortzen edo egiten den egunaren biharamunetik aurrera.

41. artikulua. Aurkezteko epeak luzatzea.

Hala ere, aurreko artikuluko a) letran ezarritako epea amaitu aurretik, zilegi izango da «mortis causa» eskurapenei dagokien autolikidazioa aurkezteko epea beste sei hilabetez luzatzeko eskatzea.

Oinordekoei, albazei edo oinordetzan utzitako ondasunen administratzaileei dagokie luzapen-eskaera aurkeztea kausatzailearen heriotza agiriarekin batera.

Luzapena automatikoki emango da, eta aurreko artikuluko a) letran adierazitako sei hilabeteko epea amaitzen denean hasiko da kontatzen. Horrek berekin ekarriko du autolikidazioa aurkezten den egunera arte sortutako berandutza interesa ordaindu behar izatea.

Luzapenaren epea amaitu eta autolikidaziorik aurkeztu ez bada, 39. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoari jarraituko zaio.

42. artikulua. Epeak etetea.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta dauden zerga-egitateen egintza edo kontratuen inguruan auzia edo borondatezko testamentu-epaiketa sustatzen bada, interesdunek haren berri eman behar diote Zerga Administrazioari.

Aurkezpenerako ezarritako epearen barruan auzia edo borondatezko testamentu-epaiketa sustatzen bada, autolikidazioa aurkezteko ezarrita dauden epeak eten egingo dira, eta prozedura judizialari bukaera ematen dion behin betiko ebazpena irmo den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen berriro. Auzia edo borondatezko testamentu-epaiketa sustatzen bada autolikidazioa edo, kasua bada, Zerga Administrazioak libratutako likidazioa egin eta gero, ordainketa atzeratzea adostu daiteke zergaren foru arauak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artikulu honetan aipatzen diren epeak etetearen ondorioetarako, dilijentzia judizialak ez dira auzigaitzat hartuko xede hau dutenean: Testamentuak irekitzea edo horiek eskritura publiko bihurtzea, inbentarioak osatzea herentzia inbentario-onuraren arabera onartzeko edo onarpenari buruz deliberatzeko, tutorea, kuradorea edo defendatzaile judiziala izendatzea, abintestatoa edo testamentu-epaiketa prebenitzea, oinordekoak deklaratzeko oposiziorik formulatu ez denean eta, oro har, borondatezko jurisdikzioan sartzen diren jarduketak egitea auzi izaerarik hartzen ez dutenean. Orobat, ez da etenaldirik izango legezko atzera-eskurapena edo doako justiziaren onura eskatzen denean, ez testamentuaren edo abintestatoaren aurkako zorrak likidatzera zuzendutako erreklamazioak aurkezten direnean, harik eta epaiketa unibertsala hartzekodunaren eskariz sustatu arte.

Borondatezko testamentu-epaiketa sustatzeak epeak etenaraziko ditu. Horiek berriro hasiko dira kontatzen zatitzeko eragiketak onartzen dituen autoa edo, aurka egin bada, auziari amaiera ematen dion epaia irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik aurrera, edo, bestela, sustatutako judizioan interesdun guztiek atzera egiten dutenetik aurrera.

Artikulu honen ondorioetarako, ulertuko da auzigaia demanda aurkezten den egunean hasten dela.

Ondorio horietarako ere, testamentuaren edo eskualdaketa jasotzen duen dokumentuaren faltsutasunari buruzko zigor prozedurak auzigaiekin parekatzen dira.

Alderdi auzilariak sei hilabeteko epean uzten badiote auziaren jarraipena eragiteari, auzia ekarri duen egintza edo kontratua autolikidatu behar dute, nahiz eta horrek ez duen kenduko bidezko itzulketa jasotzea baldin eta auzia behin amaituta egintza edo kontratua ondorioz gabea dela adierazten bada. Auzitegiek deklaritzen badute auzia sorrarazi duen instantzia iraungi dela, epeak ez dira etengo, eta Administrazioak dagozkion zehapenak eta berandutza-interesak exijituko ditu autolikidazioa aurkezteko arauzko epeak amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Jarduketak eteten badira alde guztiak ados jarri direlako, etendura eskatu den egunetik aurrera hasiko da berriro kontatzen etendako aurkezpen epea.

Heriotzaren ondoriozko eskurapenetan, oinordekoak ezagunak ez badira, herentziako ondasunen administratzaileek edo edukitzaileek, propio ezarritako epeak amaitu baino lehen, autolikidazioa egiteko exijitzen diren agiriak aurkeztu behar dituzte, oinordekoen zerrenda izan ezik; gainera, arrazoi zuzen bat badagoela justifikatuz gero, etendura eskatu dezakete autolikidazioa aurkezteko epean.

Zerga Administrazioak uste badu etendura ez dagoela justifikatuta, behin-behineko likidazio bat egingo du kausatzailearen ordezkariaren kargura, oinarri likidagarriari zergaren foru arauak arrotzen arteko oinordetzarako ezartzen duen tarifa aplikatuta. Hala ere, sobera ordaindutakoa itzuliko da, hala badagokio, oinordekoak zein diren ezagutzen denean eta horiek kausatzailearekin zein ahaidetasun duten frogatzen dutenean.

43. artikulua. Autolikidazioa aurkezteko eta ordaintzeko lekua.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduak aipatzen dituen entitate laguntzaileen bitartez ordaindu behar da autolikidazioaren zenbatekoa. Hori egin ondoren, zergapekoek hurrengo artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari.

2. Autolikidaziotik ez bada ateratzen ordaintzeko zerga kuotarik, Zerga Administrazioan aurkeztuko da zuzenean autolikidazioa, dagokion dokumentazioarekin batera.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ahalmena izango du erabakitzeko nola aurkeztu behar diren autolikidazioak bide telematikoz eta zein modutan ordaindu beharko den, hala badagokio, haietatik datorren kuota. Orobat, arautu ahal izango du nola aurkeztu behar den hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera autolikidazioei erantsi beharreko dokumentazioa.

44. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.

1. Autolikidazioaren zenbatekoa ordaindu ondoren, subjektu pasiboek zerga sortu duen egintza edo kontratua dokumentatzen duen agiri notarial, judizial, administratibo edo pribatuaren jatorrizko alea eta kopia soila aurkeztu behar dizkiote Zerga Administrazioari. Agiri horretan zehaztuta etorri behar du zein den zergaren oinarri ezargarrarian sartutako ondasun edo eskubide bakoitzaren benetako balioa. Ondasun higiezinak eskualdatzen direnean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako esleitutako erreferentzia katastrala eta zenbaki finkoa adierazi beharko dira agiri horietan.

Horrez gain, honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

A. «Mortis causa» eskurapenen kasuan, agiri hauek erantsiko dira:

a) Kausatzailearen heriotza agiria eta Azken Nahien Erregistro Nagusiak emandako ziurtagiria. Orobat, kausatzailearen eta bere oinordekoen edota legatadunen nortasun agiriaren fotokopia atxikiko da, non eta agirien zenbakiak ez diren ageri lehendik aurkeztutako dokumentu publikoetan eta ez dagoen zertan aintzat hartu haien adina zein den. Gainera, kausatzailearekiko ahaidetasun maila frogatu beharko da, familia liburua eta bestelako egiaztagiria aurkeztuta, ahaidetasuna mailarik urrunenekoa denean izan ezik.

b) Testamentu xedapenak, halakorik badago, edo horren ezean, oinordekoen deklarazioari buruzko testigantza. Testamenturik gabeko oinordetzetan, oinordekoen deklarazio judiziala egin gabe badago edo nabaritasun-aktarik eman ez bada, ustezkoen zerrenda bat aurkeztuko da kausatzailearekin duten ahaidetasuna adierazita.

c) Kentzen diren zama, karga, zor eta gastuen frogagiria eta, hala badagokio, bai finantza-entitateetan irekitako kontuen saldoei eta bai Burtsan kotizatzen ez duten entitate juridikoetako kapital partaidetzen balio teorikoari dagozkienak. Ibilgailuen kasuan, zirkulazio baimenaren eta fitxa teknikoaren fotokopia erantsi behar dira.

- d) Oinordetzan sartutako ondasun higiezinak kausatzaileak eskuratzeko tituluaren frogagiria. Horretarako, ondasun eta eskubideen eskritura publikoen fotokopia aurkeztu beharko da, salbu eta agiri publikoak aurkeztu eta horietan ondasunen deskripzioa eta titulua jasota ageri direnean.
- e) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartuak, ezgaitasun eta mendetasun mailak frogatzeko 67. eta 68. artikuluetan aipatzen dituen ziurtagiriak.

B. Dohaintzetan eta «inter vivos» egindako kostu gabeko gainerako eskurapenetan, hauek erantsiko dira:

- a) Dohaintza-emailearen eta dohaintza-hartzaileen nortasun agiriaren fotokopia, non eta agirien zenbakiak ez diren ageri lehendik aurkeztutako dokumentu publikoetan eta ez dagoen zertan aintzat hartu haien adina zein den. Gainera, kausatzailearekiko ahaidetasun maila frogatu beharko da, familia liburua eta bestelako egiaztagiak aurkeztuta, ahaidetasuna mailarik urrunenekoa denean izan ezik.
- b) Kentzen diren zama, karga eta zorren frogagiriak. Ibilgailuen kasuan, zirkulazio baimenaren eta fitxa teknikoaren fotokopia erantsi behar dira.

C. Aseguru kontratuetatik jasotako kopuruen kasuan, hauek erantsiko dira:

- a) Kausatzaileak hitzartutako kontratuen ale bana, edo, aseguru kolektiboa izanez gero, aseguru-entitateak emandako ziurtagiria, zenbat jasoko den eta onuradunak zein diren adierazi behar duena.
- b) Erregistro Zibilak luzatutako heriotza agiria. Gainera, kausatzailearekiko ahaidetasun maila frogatu beharko da, familia liburua eta bestelako egiaztagiak aurkeztuta, ahaidetasuna mailarik urrunenekoa denean izan ezik.
- c) Onuradunaren eta kausatzailearen nortasun agiria.
- d) Aseguruaren polizan onuradunak ez badira berariaz eta zehazki aipatzen legezko oinordekoengana bidaltzen duelako, beharrezkoa izango da kausatzailearen testamentu-xedapenak aurkeztea, halakorik bada, azken nahien ziurtagiriarekin batera. Testamenturik ez badago, horren ordez, oinordekoak deklaritzen dituen auto judiziala edo notario-akta aurkeztuko da.

D. Zergaren foru arauak 19. artikulua 1. apartatuan aurreikusten duen murrizpena aplikagarria denean, beharrezkoa da aurkeztea bai errolda agiria eta bai bizikidetzarena, kasuan kasuko udalak eginak, etxebizitza eskualdatu aurreko bi urteetan eskuratzailerak kausatzailearekin edo doako eskualdatzailearekin etenik gabe bizi izan dela frogatzeko; horrek ez du eragozten bizikidetzat frogatzea zuzenbidean onartuta dagoen beste edozein bide erabilita.

2. Autolikidazioa aurkeztean subjektu pasiboak salbuetsitzat hartzen badu eskurapena zergaren foru arauko 5.1 artikuluan xedatutakoaren babesean, agiri hauek erantsi behar ditu:

- a) Nekazaritza gaietan Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen departamentuak luzatutako ziurtagiria. Bertan titularra identifikatu behar da, eta jasota utzi eskualdatutako finka Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan inskribatuta dagoela.
- b) Bai eskualdatzailea eta bai eskuratzailerak dagokien zentsu fiskalean alta emanda egotearen frogagiriak.
- c) Eskualdatzailea nekazaritza jardueragatik Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta emanda egotearen frogagiria. Eskuratzaileraren alta eskaera ere erantsi beharko da.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ahalmena izango du erabakitzeke nola behar den aurkeztu artikulua honetan zerrendatutako dokumentazioa, eta, orobat, erabaki dezake bidezko iritzien den beste edozein dokumentazio ere aurkeztu beharko dela ondasun eta eskubideen balorazioa frogatzeko eta salbuespenak, murrizpenak eta gainerako onura fiskalak aplikatzeko.

45. artikulua. Autolikidazioa tramitatzea.

1. Zerga Administrazioak aurkeztutako agiri notarial, judizial, administratibo edo pribatua itzuliko dio aurkezleari, bertan ohar bat jarrita diru sarrera egin dela eta kopia aurkeztu dela frogatzeko. Diru sarrerari buruzko ohar hori kopian ere jarriko da. Zerga Administrazioak beretzat gordeko du kopia hori.

2. Autolikidaziotik ez bada ateratzen ordaintzeko zerga kuotarik, Zerga Administrazioak autolikidazioa zigilatu eta ohar bat jarriko du jatorrizko agirian, interesdunen iritziz zilegi den kalifikazioa jasotzeko; gero, aurkezleari itzuliko dio agiria, eta bulegoan kopia soila gordeko da.

46. artikulua. Konturako autolikidazio partziala.

1. Erregelamendu honen 39.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki, «mortis causa» eskurapenetan, subjektu pasiboek, aurretiaz denak ados jarrita, bat baino gehiago izanez gero, zilegi dute zergaren autolikidazio partzial bat egitea kausatzailearen kredituak kobratzeko, hark sortutako eta jaso gabeko hartzeak eskuratzeko, edo gordailaturik dauden ondasunak, baloreak, efektuak edo dirua eramateko. Gauza bera egin dezakete egoera desberdin batean dauden beste ondasun batzuei dagokienez, antzeko kasuetan autolikidazio partziala egitea justifikatzen duten arrazoi nahikoak daudenean.

Autolikidazio partziala aurkezten duten subjektu pasiboek, geroago autolikidazioa aurkeztu beharko dute eskuratu dituzten ondasun eta eskubide guztiengatik, kapitulu honetan aurreikusitako moduan.

2. Autolikidazio partziala egiteko, ondasunen balioari zergaren tarifa aplikatu behar zaio inolako murrizpenik gabe.

3. Kapitulu honetan ezarritako eran autolikidazio partziala aurkeztu eta, kasua bada, haren zenbatekoa sartu ondoren, Zerga Administrazioari aurkeztu behar zaio hura, eta hari likidatutako ondasunen zerrenda bat bi aletan erantsi. Zerrenda horretan ondasunak deskribatzeaz gainera, haien balioa eta egoera adierazi behar dira, ordainketa egitea edo ondasunak entregatzea zer pertsona edo zer entitateri dagokien azaldu, eta zer tituluk frogatzen duen eskatzailearen edo eskatzaileen eskubidea zehaztu. Zerga Administrazioak zerrendaren ale bat itzuliko du, aurkezpena eta diru sarrera egin izanari buruzko oharra bertan jarrita.

4. Autolikidazio partzialaren indarrez egiten den diru sarrera, dena delako herentzia oinordetzarengatik gerora egitekoa den likidazioaren konturako sarreratzat hartuko da.

47. artikulua. Bizitza aseguruaren kontratuengatik errenta moduan jasotako diru kopuruei dagokien kuota zatikatzea.

1. Zergaren foru arauak 38. artikuluan 4. apartatuan aipatzen dituen bizitza aseguruaren, onuradunek errentaren uneko balioa sartu behar dute oinarri ezargarrian.

2. Erregelamendu honen 40.a) artikuluan ezarrita dagoen epean, onuradunak zilegi du eskatzea bizi arteko edo aldi baterako errentaren uneko balioari karga-tasa aplikatetik ateratzen den kuota zatikatzeko, betiere zergaren foru arauaren 19.4 artikuluan jasotako kopuruak kenduta, hala badagokio.

3. Zerga Administrazioak hiru hilabeteko epean jakinarazi behar dio zergadunari eskaeraren ebazpena, eta epe hori beteta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera onetsi dela ulertuko da.

Zerbait faltan duenean edo foru arauan zein erregelamendu honetan ezarritako beharkizunak betetzen ez dituenean

baino ezin daiteke ezetsi eskaera.

4. Ordainketa zatikatuari urtean zer diru sarrera dagokion kalkulatzeko, eragiketa hau egin behar da: Zatikatzan den kuota zati errenta jasotzen den urte kopurua, aldi baterako errenta bada, edo zati hamabost, bizi arteko errenta bada.

Zatikapena onartzen duen ebazpenak ezarritako epeetan egin beharko da urteko ordainketa zatikatua.

5. Erreskate eskubideaz baliatuz gero, egin gabe dauden ordainketa zatikatu guztiak eskubide hori baliatu ondorengo hogeita hamar egunen barruan egin beharko dira.

6. Errenta iraungitzen bada, benetan jaso eta ordaindu zain dagoen urteko errentari dagokion ordainketa zatikatua baino ez da exijituko.

II. KAPITULUA. PROZEDURA BEREZIAK

48. artikulua. Zerga-egitateen presuntzioen inguruko prozedura.

Zerga Administrazioa jakitun bada zergaren foru arauko 4. artikuluan aipatutako egitateetako bat gertatu dela, hain zuzen ere zergari lotutako ondare gehikuntzak egoteari buruzko presuntzioak dakartzana, eta egitate hori ez bada autolikidatu erregelamendu honetan ezarritako epeetan, interesdunei jakinaraziko die zerga-egitatea gertatu izanari buruzko adostasuna edo ezadostasuna adieraz dezaten, eta hamabost eguneko epean egoki irizten dituzten alegazio, froga eta agiriak aurkez ditzaten.

Epe hori igaro ondoren, Zerga Administrazioak, espedienteak ikusita, bidezko den ebazpena emango du, eta, hala badagokio, gertatutzat jotzen dituen zerga-egitateei dagozkien likidazioak egingo ditu.

49. artikulua. Herentzia masari ondasunak gehitzeko prozedura.

Heriotzaren ondoriozko eskurapen baten autolikidazioa behin aurkeztuta, Zerga Administrazioak egiaztatzen badu badirela ondasunak kausatzailearen ondasunen inbentarioan aipatu ez direnak eta horiek zergaren foru arauko 11. artikuluan edo erregelamendu honen 14tik 17ra eta 19. artikuluan jasotako egoeretako batean daudela, jakinaren gainean jarriko ditu interesdunak, eta hamabost eguneko epea emango die aipatu ez diren ondasunak kausatzaileak utzitako ondasun-multzoari gehitzearen alde ager daitezen.

Interesdunek gehitze hori onartzen badute, egiten diren likidazioen oinarri ezargarrian ondasun gehigarrien balioa sartuko da.

Baldin eta interesdunek, eman zaien epean, ondasunak gehitzeko proposamena errefusatzen badute edo hari ez badiote epean erantzuten, Zerga Administrazioak espediente bat irekiko du ondasunak gehitzeari buruz erabakitzeko, betiere interesdunei hamabost eguneko epea emanda egoki irizten dituzten alegazio, agiri edo frogak aurkez ditzaten. Epe hori igarota, erabakiko da ondasunak gehitzea bidezkoa den edo ez.

Egoera horietako batean dauden ondasunak gehitzen dituen egintza administratiboa errekurritu daiteke berraztertze errekurtsua jarritz edo bide ekonomiko-administratiboa erabiliz.

Bide administratiboa ondasunak gehitzearen alde amaituz gero, Zerga Administrazioak bidezko diren behin-behineko likidazioak egingo ditu, hala badagokio.

50. artikulua. Kausatzailearen zorrak kentzeko prozedura zerga ordaindu ondoren agerian jartzen direnean.

Interesdunek egindako autolikidazioak ordaindu ondoren agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko prozeduran erregela hauek hartuko dira kontuan:

1.a.— Kendu gabeko zorrarengatik ordaindu den zerga-zatia berandutza interesik gabe itzuliz egingo da kenkaria. Ordaindutako zenbatekoaren eta autolikidazioa egitean zorraren zenbatekoa kendu balitz ordainduko zen zenbatekoaren artean dagoen diferentzia, horixe izango da zerga-zatia.

2.a.— Interesdunek bidezko zuzenketa eskatu behar diote, idatziz, Zerga Administrazioari, zorra badagoela edo zerga sartu ondoren zorra ordaindu dela frogatzen duten agiriak ere erantsita.

3.a.— Zerga Administrazioak uste badu zorraren existentzia edo haren ordainketa sinesgarriro frogatu dela, aldeko ebazpen batean lehen erregelari aipatutako zerga-zatia itzultzeko eskubidea aitortuko du. Kontrako kasuan, ezezko erabakia hartuko du, eta interesdunei halaxe jakinaraziko die, aurkez ditzaketen errekursoak ere adierazita.

4.a.— Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko autolikidazioa aurkezteko epea amaitu denetik lau urte igaro badira edo likidazio administratiboak irmoak eta behin betikoak badira.

51. artikulua. Dohaintza-emailearen zorrak kentzeko prozedura, dohaintza-hartzaileak ordaindu dituenean.

Dohaintza-emailearen zor bat hark dohaintzan emandako ondasunen gaineko eskubide erreala bermatuta badago, eta zor hori dohaintza-hartzaileak ordaindu badu dohaintzari dagokion zerga sartu ondoren, erregela hauek aplikatuko dira zor horri dagokion zerga-zatia itzultzeko:

1.a.— Ordaindutako baina dohaintzaren oinarri ezargarrian kendu gabeko zorraren zerga-zatia haxe izango da, alegia, ordaindutako zenbatekoaren eta autolikidazioa egitean zorraren zenbatekoa kendu balitz ordainduko zenaren arteko diferentzia.

2.a.— Lau urteko epean, autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera kontatuta, interesdunak zuzenketa eskatu behar du idatziz, eta zorra bere kontura ordaindu izanaren frogagiriak ere erantsi behar ditu.

3.a.— Zerga Administrazioak uste badu dohaintza-hartzaileak sinesgarriro frogatu duela zorra ordaindu izana, aldeko ebazpen batean itzulketarako eskubidea aitortuko du, berandutza interesik sartu gabe. Kontrako kasuan, ezezko erabakia hartuko du, eta interesdunei halaxe jakinaraziko die, aurkez ditzaketen errekursoak ere adierazita.

52. artikulua. Ondasunei aplikatutako zerga itzultzeko prozedura, haien gainean Administrazioak eskuratzeko eskubidea erabili duenean.

1. Foru Aldundiak erregela hauei jarraiki erabiliko du zergaren foru arauko 18. artikuluan ezartzen den eskurapen eskubidea:

1.a.— Zergaren organo kudeatzaileak ofizios tramitatuko du espedientea. Organo horrek, likidazioa irmo bihurtu ondorengo hilabetearen zehar, bat igorri behar dio Ogasuneko zuzendari nagusiari, bertan agerian jarrita zer autolikidaziotan betetzen dituzten ondasunek edo eskubideek zergaren foru arauko 18. artikuluan ezarritako beharrezkoak. Eskuratu daitezkeen ondasun zehatzak eta eskuratzailen izena, helbidea eta gainerako zirkunstantzia pertsonalak ere adierazi behar dira zerrenda horretan.

Zerrenda hori jaso ondorengo hilabetearen zehar, Ogasuneko zuzendari nagusiak beharrezko txostenak eskatuko ditu eta, horiek ikusita, erabakiko du zein ondasunen gainean erabiliko duen Foru Aldundiak lehentasunez eskuratzeko eskubidea, hori guztia aurreko paragrafoan aipatutako likidazioak irmo bihurtu ondorengo hirugarren hilabetearen barruan.

Espedientearen tramitazioa interesdunei jakinaraziko zaie, nahi badute espedientearen agertu daitezen eta egoki irizten dituzten alegazioak zein agiriak aurkez ditzaten. Era berean, espedientea Jabetza Erregistrora, Merkataritzakora edo Ondasun Higigarrien erregistroetara bidaliko da, ohar baten bidez jasota utz dezaten dena delako ondasun edo eskubidearen gainean Administrazioak eskuratzeko eskubidea erabili duela. Espedientea amaituta, bidezko ebazpena proposatuko zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari.

Aurreko paragrafoan aipatu den lotura-oharra hura egin eta bi urtera iraungiko da.

2.a.— Foru diputatuaren ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, eta haren aurka hautazko berraztertze errekurtsio aurkeztu ahal izango da, administrazio prozedura erkidearen araudian xedatutakoari jarraiki.

2. Behin ebazpena emanda, eskumena duen zerbitzuak espedientea tramitatuko du sobera ordaindutakoari dagokion zerga-zatia interesdunari ofizioz itzultzeko.

Itzuli behar den zerga-zatia diferentzia honen emaitza izango da: Ordaindutako zenbatekoa ken ordainduko zena Administrazioak likidazio osagarria egiteko aintzat hartutako oinarrian balio egiaztatuaren ordezkuraturako ondasunarentzat interesdunak aitortutako balioa konputatu izan balitz.

Ondorio horietarako, eta aplikagarri den guztian, kontuan hartuko da zer dioen II. tituluko V. kapituluan Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra administrazio bidean berrikusteari dagokionez garatzeko Erregelamenduak, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuak onartutakoak.

III. KAPITULUA. ERREGISTROA IXTEA

53. artikulua. Erregistroa ixtea.

1. Jabetza erregistroek, merkataritza erregistroek, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak, ondasun higigarrien gaineko hipoteken eta edukitzaren lekualdatu gabeko bahien erregistroek, herri administrazioen menpeko kooperatiba erregistroek eta ondasun higigarrien erregistroek ez dute agiririk onartuko, inskribatzeko edo haien oharra hartzeko, baldin eta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta dagoen egintza edo kontratuari buruzkoa izanik, aldeztu aurretik ez bada frogatzen Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerga ordaindu zaiola. Salbuespen izango dira hipoteka-legerian ezarritako kasuak gertatzen direnean edo Foru Aldundiak berariazko baimena ematen duenean.

2. Aurreko apartatuan ezarritako ondorioetarako, ulertuko da zerga ordaindu izana frogatuta dagoela dokumentuak ordainketaren frogagiria erantsita daramanean, eta harekin batera ordainketa-gutuna edo autolikidazioaren alea Administrazioak behar bezala zigilatuta aurkezten denean. Ale horretan, beharrezkoa izango da zerga ordaindu dela agertzea, edo bestela esatea ez dagoela zergari lotuta edo salbuesita dagoela. Ordainketa frogatutzat joko da, zergaren autolikidaziotik ateratako zorra geroratu edo zatikatzeko eskatu dela egiaztatzen denean.

3. Inskripzioaren albo-ohar baten bitartez, erregistratzaileak jasota utzi behar du eskualdatutako ondasun edo eskubideagatik bidezko likidazioa edo likidazioak ordaindu behar direla. Autolikidazioagatik diru sarreraren bat egin bada, ordaindutako zenbatekoa adieraziko da.

4. Oharra ofizioz egingo da, eta eraginik gabea eta, ondorioz, deuseztatu beharrezkoa izango da likidazioen ordainketa-gutuna aurkezten denean, edo haiek ordaindu direla sinesgarriro frogatzen denean beste edozein modu erabilita, eta edozein kasutan ere, oharra egin denetik lau urte igaro ondoren.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikoteei egiten zaizkien aipamenak izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutakoei egindakotzat jo behar dira.